

**ANTSOAIN**
**2010eko karga-tasak**

Antsoaingo Udalak, 2009ko abenduaren 30ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen ondoko tributueterako karga-tasak eta errekaruak ezartzea, 2010eko urtarrilaren 1etik aitzina aplika daitezzen:

Hirilurraren kontribuzioa. Karga-tasa: %0,181.

Landalurraren kontribuzioa. Karga-tasa: %0,80.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: 1,4 indizea ezartzea, zergaren gutxieneko kuoten gainekoa.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga-tasa, %5.

Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga:

a) Benetako igoeraren zenbatekoa zehazteko, ondoko portzentajea aplikatuko da sorrarazpena gertatu zenean lurra zuen balioaren gainean:

BALIO IGOERA ZER ALDITAN GERTATZEN DEN			
URTEBETETIK 5 URTERA	10 URTE BITARTE	15 URTE BITARTE	20 URTE BITARTE
%3,4	%3,3	%3,3	%3,2

b) Ordaindu beharreko kuota zehazteko, ondoko laukititik ateratzen den karga-tasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari:

BALIO IGOERA GERTATU DEN ALDI BAKOITZERAKO FINKATURIKO KARGA-TASAK			
URTEBETETIK 5 URTERA	10 URTE BITARTE	15 URTE BITARTE	20 URTE BITARTE
%12	%12	%12	%10,50

Halaber, hasiera batean onetsi zituen ondoko ordenantza fiskalak eta prezio publikoei buruzkoak. Erregelamenduek agindutako tramiteak egin ondoan, 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra:

-0. Ordenantza fiskal orokorra.

-1. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

-2. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga.

-3. Agiriak luzatu eta tramitatzea.

-4. Lizentziak eman eta hirigintza jarduerak egitea.

-5. Jarduera sailkatu eta kaltegabeetan aritzeko eta establezimenduak irekitzeko lizentziak.

-6. Ibilgailuak eremu publikotik kendu eta horren ondotik altxatzea.

-7. Ordezko betearazpenak eta betearazteko aginduak.

-8. Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak irekitzea eta eremu publikoko zoruaren edo espaloietan edozein mugimendu egitea.

-9. Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta eremu publikoa aparkaleku eskusiborako, ibilgailuak gelditzeko nahiz edozein motatako salgaien zamalanetarako erreserbatzea.

-10. Herriko jabari publikoko lurzorua, hegalkinaren eta zorupearen erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

- 11. Herriko jabari publikoko lurzoruan, hegalkinean eta zorupean hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu berezian tasa arautzen horniduren zerbitzu publikoen enpresa ustiatzaileek egiten dituzten aprobetxamendu bereziak.
- 12. Haur eskolara etorri eta bertan egoteko zerbitzua ematea.
- 13. Udal igerilekuen, zentro hidrotermalaren eta instalazio osagarrien erabilera.
- 14. Udalak eta haren patronatuek antolatutako hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloko ikastaro eta jardueretarako sarrerak, inskripzioak edo matrikulak.
- 15. Ordenantzetan eta udal erabakietan agindutako ikuskapenak.
- 16. Kontribuzio bereziak.
- 17. Ezkontza zibilak egitea.
- 18. Udalaren lokalak erabiltzea.

Espedientea jendaurrean edukiko da 30 egunean, ediktu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Antsoainen, 2009ko abenduaren 30ean.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L0929323